

txoritxoari mokoka

'Pacific blue'

Baina zer pasatu zait burutik arratsalde horretan bazkalosteko kafea telebista so eginez edateko? TF1ek *Pacific blue* egunero hedatzen duen sugetzarraren orduan, hain zuzen! Kaliforniako itsasertzean, bertako gizon eta emazte ederrenek —nolaz ez AEBetan gaudenez— polizia multzo berezia osatzen dute; txirrinduz ibiltzen dira gaiztaginak errazago zaintzeko eta atxilotzeko. Irudiak ezin politagoak, dena hondartza eta eguzki, neska eta mutilak ile hori eta begi urdinekin, gorputzez oso ongi eginak,



EGUNKARIA
TF1eko *Pacific blue* telesaileko protagonistak.

Xarlo Etxezaharreta

azal beltza, dena kirol eta plazer... Ondoan, droga saltzailak eta ohinak... polizien arteko amodio istorio bat... horiek denak nahastu eta hor daukazue errezeta paregabea oraino zoroa ez den jendea tontotzeko. Azken irudian poliziak txirrinduz autoak baino azkarrago ibilki dira, AEBetan horrela baitira gauzak gertatzen; orenen buru, zuzenbideak eta onek irabazten dute, hainbat hobe! Ziur naiz inori ez diola buruko minik sortzen sugetzarrak, burmuinak bakean uste dituelako siesta orduan. Halere, neure buruarekin haserre nintzen, ordu bat galdurik; irakurleak ba ote daki lerro hauen idatzi aurretik zenbat sufritu behar dudanez telebista aurrean? Hau gurutzeara!



NAGORE ZALDUA

Under The Blue ekoiztetzeko hiru kideak, dortoka bat grabatzen.

Natura ikertu eta grabatzeko pasioarekin

NATUR DOKUMENTALAK. Donostiar batek, suitzar batek eta kanadar batek osatzen dute Under The Blue Pictures ekoiztetxea

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Azkenaldian naturarekin lotutako dokumentalak indar handia hartzen ari dira. *Prime time* orduetara ere iritsi dira bai Euskal Herrian bai beste herrialde batzuetan, eta halako lanak egiten ari dira Suitzako Under The Blue Pictures ekoiztetxe kanadarraren hiru kideak: Thomas Groninger suitzarra, Stephan Kirtchhoff kanadarra eta Nagore Zaldua euskalduna.

Abentura handi batean sartuta dago Zaldua biologo donostiarra, duela bost urtetik, Mexikora joan zenetik. «Ni ingurumen eta zoologian espezializatu nintzen, eta hori bukatzean oso argi nuen kanpora joan nahi nuela. Mexikoko

Oaxaca eta Guerrero estatueta-ko kostaldean itsas dortokekin lan egiteko aukera sortu zitzaidan, hasieran boluntario gisa. Gero, proiektuko koordinatzaileak beste urte baterako lana eskaini zidan», dio biologoak.

Zaldua han zegoela, zientzialari amerikar batzuk joan ziren, horien artean kamerari suitzar bat (Thomas Groninger). Dokumental bat egiten ari zen Groninger eta donostiarraren laguntza jaso zuen: «Euskal Herriira itzuli nintzen, baina handik hilabete batzuetara suitzarraren gutun bat jaso nuen, bere ekoiztetxe txikian lan egiteko proposamenarekin. Orduan, nire dorkak eta Mexikoko jendea berriro ikusteko aukera izan nuen, baina oraingoan dokumental bat grabatzeko», azal-



UNDER THE BLUE PICTURES

Nagore Zaldua, Mexikoko kostaldean, dortoka batekin lanean.

du du Zalduek. TSR kate suitzar-rrak neguan eman du dokumental hori, frantsesez, eta orain lana gaztelaniara ari dira itzultzen.

Proiektu horren ondotik gehiago etorri ziren, nahiz eta ekoiztetzeko kideak bata Kanadan egon, bestea Suitzan eta hirugarrena Euskal Herrian. Under the Blue ekoiztetzeko kideei iaz bestelako lan bat ere sortu zitzaion. «Londresen ingelesa hobetzen ari nintzela, Alpeetan programa bat egiteko aukera sortu zen, eta hara joan nintzen, oraingoan soinuaz arduratzera. Bi mendizalek Alpeetako Suitza, Italia eta Frantziako mugan egiten zuten zeharkaldia jarraitzea zen funtsa, astez aste», dio Zalduek. Uda honetan saio horrek jarraipena izango du.

Marrazo baleak grabatzen Pazifikoan

Nahiko baldintza gogorretan, baina bere pasioarekin jarraitzeko aukera izan du Zalduek. Azkeneko abentura udazkenean izan zuen: «San Diegora joan ginen lehendabizi, eta handik

Behe Kaliforniako kostaldera abiatu ginen, marrazo baleak grabatzera. Sasoi jakin batean marrazoak Cortesko itsasoan ibiltzen dira, baina oso tenperatura hotzak izan genituen eta pentsatzen genuen baino gutxiago ikusi genituen. Hartutako irudi guztiak editatzen gabiltza orain, aurkezpen moduko dokumental bat izango dena. Ondoren marrazoaren sail osoa egin nahi dugu». Munduko animaliekin beste saio bat egiteko asmoa ere badu ekoiztetxeak.

Ikaragarri gustatzen zaion arren berea oso lan gogorra dela dio Zalduek: «Marrazoak grabatzen, goizeko 07:00etan atera behar izaten genuen itsasora eta ilunpetan gauze itzuli. Bi dokumentaletan egundoko sustoak izan ditugu, itsasoan inoiz ez baitakizu zer gerta daitekeen. Halako lanetan behar den lehen gauza pazientzia da».

Eginiko lanak saldu nahian dabilta orain ekoiztetzeko kideak. Zalduaren iritzi, merkaturua gainezka dago eta zaila da leku bat egitea, baina ziur dago aurrera egingo dutela.

ESANAK



NAGORE ZALDUA

(Under the Blue Pictures ekoiztetxea)

«Itsas dorken dokumentalean eta marrazoak grabatzen sustoak hartu ditugu»

«Natur dokumentalak egiteko, pazientzia handia behar da»

«Marrazoei buruz sail osoa egin nahi dugu, eta munduko animaliekin, beste saio bat»